


Udal agurgarria,

Ikullu Razing eta Errebueltie eskuderietako kideak gaituzue. Aurten, gure Goi Lurrak rallyaren IV edizioaren prestaketan ari gara. Aurreko edizioak beste ingurumari batean prestatu ditugu, baina aurten beste bailara batzuk zeharkatzeko hautua egin dugu. Hori dela eta, gure Rallyak izango dituen sei erlojupekoetako bat zuen herrian pasatzea gustatuko litzaiguke. Horretarako, noski, beharrezkoak diren baimen guztiak lortzen ditugu lehenbizi. Foru aldundia, Euskadiko automobilismo federakuntza, trafikozuzendaritza (proba aurretik gutun bidez bidaliko dizuete baimena), ertzaintza... Baimen hauek guztiak eskuan izan gabe ezinezko zaigu proba burutzea. Baimen horiez gain ordea, udaletako baimena ere behar izaten dugu. Baiemen hori, arazoak ekiditeko, idatziz jasotzea gustatzen zaigu.



Horretarako, probaren gaineko zenbait zehaztapen bidaltzen dizkizuegu:

- **Ibilbidearen mapa:**
 - HAISERA ETA AMAIERA METRO BATZUK GORA BEHERA IZAN DAITEZKE. ZEHAZTAPEN GEHIAGOZ IKUSI NAHI BADIRA GERTURATUKO GINATEKE. **(Ibai 688642894)**



- **Errepidearen itxiera orduak:**
 - **Errepidea itxia** mantenduko da **15:15-20:30** artean
 - Errepide inguruan izan daitezkeen abereak lotzea edo istea eskatuko genuke, guztion segurtasuna bermatu asmoz.

EGUNA	ORDUA	ERREPIDEAREN EGOERA
Uztailak 2	16:15	Lehen erlojupekoa
	18:40	Bigarren erlojupekoa
	21.00 etatik aurrera	Garbiketa brigada (errepidea irekita)

Bizilagunek ateratzeko tartean izango dute bi erlojupekoen artean. Horretarako, aurrez harremanetan jarri beharko dute bizilagunen arduradunarekin (**Ibai 688642894**) eta hitzordua zehaztu beharko dute.

Bizilagunekin begirune berezia izaten saiatzen gara.

- **Zenbait ohar:**

Kontaktua: 688642894 (Ibai Agirre) **Ibilbide eta bizilagun arduraduna**